

» TELEGRAMA

Azaroaren 22an hasi zen eta 29an bukatuko da **Lekeitioko 38. Euskal Zine eta Bideo Bilera**. Egitarau zabalaren barruan, Aitor Mazo aktorea zena omenduko dute besteak beste STOP Galanta antolatu dute Orion oraingoan: azaroaren 28an Karela kiroldegian **Gure bazterrak jaialdia**, tartean El_Txef_A, Joe La Reina, Bi Bala eta Joseba B. Lenoir Gang STOP Zilbetiko mehategiei buruzko **Lur dokumentala** proiektatuko dute azaroaren 28an Iruñeko Katakraken. Ondoren, solasaldia STOP Eclats konpainiak **Ai! Ze haizea!** musika ikuskizuna eskainiko du Sarako Lur Berri gelan, 3 urte baino gehiagokoentzat.

» DISKOA

Etxean arrotz



Atx! ETEN

Eten / Arto Artian, 2015



Joxi Ubeda

Azken urteotako lanaren emaitza da *Atx!*, Unai de la Iglesia eta Ibon Rodriguezek osatzen duten Eten bikotearen bosgarren lan luzea. Grabazioan Unaik bateria jo eta abestu egin du, eta Ibonek gitarra jo, abestu eta grabazioa eta aurre-nahasketak egin ditu. Beste bi lagunek parte hartu dute egitasmoan: Tzesne musikariak ekoizpena egin du eta Jon Martin marrazkilaria diseinu lanez arduratu da.

13 abesti frenetiko entzun daitezke 27 minutuan. Hardcore pieza gordinak eta bortitzak, energia erauntsiak, zaratak, giro iradokitzailak, une bitxiak, bateria kolpe eroak, errepikapenak, esperimentazioa, inprobisazioa, oihiak eta ohiko kantuen eskema jakinen suntsiketa

saioak. Nolabait esateko, ez dira edonon entzun daitezkeen doinu arruntak. Musika baino gehiago jarrerara bat da, adierazteko modu bat. *txATXuaren kalejira* kantuan, esaterako, “Ez zara inoiz sentitu arrotz zure etxean bertan? Ez ote zara zeu izango sobera dagoena?”, diote. “Non daude

zure printzipioak? Begiratu zure zapaten zolan”, *mATXiruloaren ATXimurra* kantuan. “Ez salatu, izan zintzo!”, *txintxoaren mehATXua* kantuan. “Zure izerdia politikoa da, zure taupadak politikoa dira, zure ohea politikoa da, zure algarak politikoa dira, zure malakoak politikoa dira, zure musika politikoa da”, *AT* kantuan. “Zure jantziak politikoa dira, zure mozorroa politikoa da, zure ametsak politikoa dira, zure etxea politikoa da”, *X!* kantuan.

Atx! lan ederra da, biribila, artelan bat, doinuz, hitzez eta irudiz ongi landua eta osatua. Binilozko euskarrian eta CD moduan eskura daiteke. Binilozko aleak eskuz belztu eta serigrafiatu dituzte. Halaber, doan deskarga daiteke nola artoartian.org hala etentaldea.net web helbideetan, herriko(p)ia lizentziapean.

1998an Nerbioi ibaiaren ezker aldean, Bizkaian, sortu zen Eten taldea. Bi kide dira gaur egun, zenbait urtetan hirukote bezala jo ostean. Le Noise, Manett, Mursego, Xabier Montoia, Cordura, Vinagre, The Extended Plays eta beste hainbat taldetan ere aritu izan dira Unai eta Ibon. Etenen jendaurreko emanaldietan bateria, gitarra, tronpeteta eta beselako musika tresnak erabiltzen dituzte.

Beren piezek dardarazi egiten naute, bizkortu, suspertu, eta oso gustura entzuten ditut. Azken aldian, gehien harritu nauen lana da *Atx!*. Haize freskoa nire belarrietan. ■

